

ICAGI jarduerak 2017ko EKAINA



ICAGI

ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGO PRESTUA

Hitzaldiak, Zin-egiteak, Omenaldiak, Domingo Arizmendi Dekanoa Sariaren Aurkezpena eta Elkargoaren Bazkaria izango dira ekitaldirik garrantzitsuenak.

26

Ekaina
junio

17,00 h

ADELA ASUAREN HITZALDIA

Legelaria, katedraduna eta, orain dela gutxi arte, Auzitegi Konstituzionaleko magistratua ere izan da Adela Asúa Batarrita. 2013ko ekainean Auzitegi Konstituzionaleko Lehendakariorde izendatu zuten.

Zuzenbide penalean egin dituen lan eta argitalpenen gai nagusia ustelkeria, non bis in idem arazoa, zuzenbide prozesala, sexu-erasoak eta sexu-delituak generoaren ikuspegitik, terrorismoa eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia konstituzionalaren bilakaera izan dira.

29

Ekaina
junio

17,00 h

ELKARGOKIDE BERRIEN ZIN-EGITEA

Zalantzarik gabe, oso ekitaldi berezia da gure elkargoaren antolamendu barruan sartzera doazen eta beren jarduera profesionala abokatutzan hastera doazen pertsonentzat.

Baina baita Elkargoarentzat ere, bere instalazioak, bere babes instituzionala eta bere laguntza guztia eskaintzen baitu sartu berriak ez daitezen babesik gabe sentitu hasi berrikan, hasierak zailak izaten baitira edonorentzat. Etorkizuneko 12 legelarik Karguaren Zina egiteko izapidea egingo dutela aurreikusten da, Elkargokide bihurtu aurreko baldintza gisa.

“DOMINGO ARIZMENDI DEKANOA SARIA ETIKA JURIDIKOARI” AURKEZTEKO EKITALDIA

Zuzenbidearen jardunean kaudimen etikoaren eta deontologikoaren balioak sustatzea helburutzat duen sari honen aurkezpena Elkargoaren ekitaldi-aretoan egingo da, eta hala, aitorten bat eskainiko zaie balio horiekin duten konpromiso aktiboan nabarmendu direnei, horiek egindako lanari esker lanbide juridikoan aritzearekin naturalki lotutako balioetat bereganatzen baititu gizarteak.

30

Ekaina
junio

12,00 h

OMENALDIA FCO. JAVIER HERNÁEZ MANRIQUERI

Javier Hernáez urte askotan Elkargoarekin loturik egon da; lehenik, Batzordeko diputatu gisa (1998-2007), gero dekanorde gisa (2007-2012) eta Abokatutzaren Euskal Kontseiluko kontseilari gisa. Baina kargu horietatik haratago, beti nabarmendu da inolako baldintzarik gabe erabateko dedikazioz lan egin duelako gure erakundearen alde.

OMENALDIA ALFREDO ERVITIRI

Alfredo Erviti esatea eta Mutualitatea esatea, dena bat da Gipuzkoan. Eta hain zuzen ere horrexegatik, Batzordeak omenaldi bat eskaini nahi dio haren ibilbideari, mutualisten kudeaketa-lana Elkargoaren esku geratuko den une honetan.

OMENALDIA DEONTOLOGIA BATZORDEARI

Lankide asko eta asko aritu izan dira Batzorde garrantzitsu honetako partaide gisa, eta orain, bertako partaide izateari utzi ondoren, nahiz Elkargokide izaten jarraitzen duten, omenaldi bero bat eskaini nahi diegu Cristina Herrero Tiradori, Francisco López de Tejada Cabezari, Juan María Arrúe Salazarri, Julio Azcargorta Arreguiri eta Roque Arambarri Alvarezari.

OMENALDIA 50 URTEZ ELKARGOKIDE IZAN DIRENEI

Aurten lankide bakar batek jasoko du omenaldia 50 urtez elkargokide izateagatik eta, beraz, bizitza oso bat abokatutzari eskaintzeagatik: Juan María Alzugaray Pastorrek, hain zuzen ere.

DIPLOMAK BANATZEA PRAKTIKETAKO IKASLEAK HARTZEN DITUZTEN LANBULEGO ETA ERAKUNDE, ENTITATE NAHIZ ENPRESEI.

Urtero, hainbat bulego profesional eta erakunde, entitate nahiz enpresak Abokatutzaren Masterra egiten ari diren ikasleak hartzen dituzte, dagoen heziketa erdiesteko behar dituzten nahitaezko praktikak bertan egin ditzaten. Eskerrak eman nahi dizkiegu bulego horiei eta, bereziki, bertako arduradunei eta, halaber, erakunde, entitate eta enpresetakoei, beren denboraren parte bat bulego profesional baten eguneroko jardunarekin loturiko ezagutzak haiekin partekatzen aritzeagatik. Aitorpen hori egiteko izendapenak ausaz egin dira.

14,30 h

URTEKO BAZKARIA

Gipuzkoako Abokatutzaren anaitasunezko urtezko bazkaria. Hotel de Londres jatetxean izango da, eta aukera ezin egokia da gure ohiko tokietatik kanpora, hots, Epaitegi, Elkargo eta abarretatik kanpora, aisialdi une bat elkarrekin partekatzeko. Fakultateko oroitzapenak berreskuratzeko egun egokia da, eta halaber, gure Elkargoan orain berriki sartu diren pertsonak edo erretiroa hartu dutelako abokatutza uztekoan dabilzanak ezagutzeko. Eta bazkaldu ondoren, beti izango dugu dibertitzeko astia. Ikasturteari amaiera emateko modu ezin hobea. Ez ezazue hutsik egin; giro aparta, dantza, oparien zozketa eta abar ziurtatuak daude.

Info gehiago eta izen emateak: 943 440118 secretaria@icagi.net